

2006KO URRIAREN 11KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila bi mila eta seiko urriaren hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko irailaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUREHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN ETA HAMABOST euro eta HOGEITA HAMABOST zentimo (481.915,35 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 761 zbk.dun esped.: asteen 6 egunez egunean 3 ordutako zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 627 zbk.dun esped.: Alabaren haurtzaindegia eta jangelako gastuak ordaintzeko hilean 136,00 € ematea irailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 792 zbk.dun esped.: Telealarmaren instalaziorako 53,77 € eta bere mantenimendu gastuetarako urtean 57,29 € ematea. Ematen zaiona telealarma kostuaren %75a da.

- 560 zbk.dun esped.: Telealarmaren instalaziorako 143,40 € eta bere mantenimendu gastuetarako urtean 57,29 € ematea. Ematen zaiona telealarma kostuaren %75a da.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Gerriko Ikerlan Beka.-

Euskara Batzordeburuak Gerriko Ikerlan Bekarako 2006 urteari dagokion bigarren zatiaren ordainketa, 2.250,00 €takoa, egiteko proposamena aztertzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena onartzea erabakitzen du.

- Euskara-eskoletara joateagatiko dirulaguntzak.-

Euskara Batzordetik, 2005-2006 ikastaroan euskara eskoletara joan direnei dirulaguntzak emateko luzatutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, proposamena onartzea erabakitzen du. Dirulaguntza ematen zaien ikasleen kopurua 21ekoa da, guztira hiru mila lauehun eta hirurogeita hamasei euro eta hogeita hamar zentimo (3.476,30 €).

Dirulaguntza hau ematerakoan jarraitzen diren erizpideak honako hauek dira: Lazkaon erroldatua egotea, eskola asitentzia gutxienez %80koa izatea eta beste erakundee-tatik inolako dirulaguntzarik ez jasotzea. Langabezian daudenei matrikula kostuaren %60-ko dirulaguntza ematen zaie eta lanean dabiltzanei berriz %33,33.

Bere espedientean aurkitzen da dirulaguntza honen banaketaren xehetasuna.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

San Benito Ikastola, eskola kirola.-

Lazkoko Udalak eta San Benito Ikastolak 2005eko abenduaren 21ean izenpetutako akordioan 2005-2006 ikasturteko eskola kirola aurrera eraman eta egiturak sendotu eta aurrera eramateko bederatzi mila berrehun eta laurogeita zortzi (9.288,- €) eurotako dirulaguntza aurrikusten zen.

Ikasturtea amaitu eta dagokion txostenak aurkeztu ondoren udal honek Gipuzkoa-ko Foru Aldunditik jaso beharreko dirulaguntza jaso duelarik, udaleko kirol batzordeak Tokiko Gobernu Batzar honi, San Benito Ikastolari bederatzi mila berrehun eta laurogeita zortzi (9.288,- €) eurotako dirulaguntza ematea proposatzen du, eskola kirola laguntza kontzeptuan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia azertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.